

TOLOSA / Liburuak irakurtzeko gune bat baino askoz gehiago

Iaz bezala Usabal kiroldegira zabaldu dute Udal Liburutegiaren zerbitzua; arduradunak gustura daude izaten ari den erantzunarekin.

ERREDAKZIOA

Udako oporrak, horrenbeste denboran itxarondako atsedeen egunak ailegatzean, denbora nola pasa antolatu beharra dago. Usabal kiroldegiak aisirako aukera paregabea eskaintzen du. Jolasteko tokia, eguzkia hartzekoa, igerilekua eta liburutegia uztartzen baititu. Iaz ireki zuten udako liburutegia solarium berrian, eta aurten ekimenarekin jarraitu dute.

Uztailaren 1ean ireki zituen ateak eta ordutik egunero zabalik dago liburutegia, 15:00etatik 19:00etara bitartean. Susana Larre Udal Liburutegiaren arduradunak azaldutakoaren arabera, oso gustura daude egitasmoak izan duen erantzunarekin. Iaz liburutegiko 100 txartel inguru egin zituzten, eta aurten ere jende asko hurbiltzen da. Bere hitzetan, egunero egiten dizkigute txartel eskaerak, eta baita liburuenak ere.

Eguraldi ona egiten duen egunetarako pentsatua dago zerbitzua, eta batik bat, mementoko irakurketarako. Larrek azaldu bezala, jendea bi edo hiru ordutarako etortzen da igerilekura, eta hauei eskaini behar zaien produktuak irakurketa arina izan behar du. Oro har, jendea ez da joaten eleberri luzeen bila liburutegira, baizik eta, aldizkari edo liburuxka laburren eskean. Hori dela eta, liburuez gain, mota guztietako aldizkariak, egunkariak, mahai-jokoak, margotzeko liburuak... aurki daitezke Usabalgo txokoan.

Haurrak dira liburutegiko txokora hurbiltzera ausartzen diren lehenak. Izan ere, guraso askok oraindik ere uste dute zerbitzu hau haurrentzat bakarrik dela, baina ez da horrela, bertaratzen diren guztiei zuzenduta baitago.

Iaz jarri zuten martxan udako liburutegia eta lehen esperientzia horren ostean zenbait aldaketa egin dituzte. Esaterako, bilduma. Liburutegiaren ohiko erabiltzailea nolakoa den aztertu ostean, horren araberrako produktu gehiago erosi dituzte oraingoan. Hala, sukaldaritzaren, bidaien, naturaren eta abarren inguruko aldizkariak, hainbat egunkari... topa daitezke bertan.

Liburutegia egun eguzkitsuetarako pentsatua badago ere, gainontzekoetan ere zabalik egoten da. Izan ere, hauetan, kiroldegiaren barnealdean jartzen dute txokoa. Dena den, aurten, oraingo, hiru edo lau egunetan besterik ez dute aldatu behar izan tokiz liburutegia.

Bi zerbitzu mota eskaintzen ditu liburutegiak. Alde batetik, kiroldegi bertakoa dago. Non, han dauden produktuak maileguan hartu eta arratsalde horretan bertan itzultzen dituzun. Bestetik, Udal Liburutegiko bat eskatu eta hara eramaten dizute, Aranburu jauregira joan beharrik izan gabe.

Irakurzaletasuna bultzatzeko ekitaldiak ere bai

Aurten estreinakoz, ipuin kontalariaren saioa ere antolatu dute Udal Liburutegikoek. Hala, Xantal Pinxel ipuin kontalariaren saioa izan zen atzo arratsaldean, solariumeko liburutegiaren gunean. Haur ugari bildu ziren bertan, korro batean bilduta, ipuin harrigarriak entzuteko asmoz.